

**A2** Sail honetako gonbidatu guztiei, euskara ikasten aritu direnean bizi izandako hainbat konturi buruzko galderak egiten dizkiegu, denei berberak. Zuetako asko bezalaxe, euskaldun berriak izanik erantzun digutena interesgarria gertatuko zaizuelakoan.

## Marta Kopinska



**H**ogeita zazpi urte ditu gaur egun Marta Kopinskak, baina hemeretzi urte zituela hasi zen euskara ikasten bere jaioterrian, Polonian. Gaur egun, Gasteizen bizi eta irakasten du. Poloniarra izan arren, euskaraz bizi dela kontatu digu.

### Zer ekarri zintuen Poloniatik Euskal Herrira?

Gauza askok, baina gehienbat euskarak berak. Oso hizkuntza polita da eta nire bizitzako une batean halako grina edo nahia sortu zitzaidan euskara ikasten hasteko eta... hementxe nauzue!

### Zuk hogeita zazpi urte dituzu, poloniarra zara eta zure fakultatean euskara ikasteko aukera izan zenuen.

Bai, halaxe da. Ni berez Poznan herrikoa naiz, Poloniako herri bat da, nahiko handia, eta bertako unibertsitatean hasi nintzen euskara ikasten hemeretzi urte nituela, unibertsitateko karrera hasi nuenean.

### Nora etorri zinen euskara ikastera, Euskal Herriko ze lekutara?

Beka batzuen laguntzaz etortzeko programa bat zegoen eta hainbat lekutara etortzeko parada izan nuen. Adibidez, Arantzazura, Lezaunera, Etxebarria... gero, nire kabuz ere ibili nintzen. Bizkaia aldean denbora luze eman nuen, Elantxoben, Laidan eta Gernikan, lanean eta uda pasatuz, eta orain dela bi urte Gasteizera etorri nintzen lanera, poloniera irakastera.

### Beraz, zu gurea ikastera etorri zara eta, bide batez, zurea irakasten ari zara...

Bai, halaxe da.

### Zenbat denbora daramazu Euskal Herrian?

Lau urte inguru, 2005. urtean etorri nintzen *Erasmus* egonaldia egitera Gasteizera eta bertan urtebete egin nuen fakultatean ikasten. Orain, fakultate berean ari naiz irakasten.

### Harrigarria da benetan zein ondo hitz egiten duzun euskara!

Eskerrik asko! Beti izango dut zerbait gehiago ikasteko, baina lagun euskaldun asko ditut, baita mutil-laguna ere eta lanean ere asko erabiltzen dut euskara. Hauxe izaten da euskaldun berrion arazo nagusia, eskolan ikasitakoa kalera eramatea eta norekin hitz egin edukitzea.

### Denbora gutxi behar izan duzu euskara ikasteko...

Lau urte daramatzat hemen bizitzen, baina euskara ikasten 19 urterekin hasi nintzen eta gaur egun hogeita zazpi urte ditut, beraz... atera kontuak!

Hasieran ez zen oso erraza izan, baina...

### Hona etorri aurretik ezagutzen al zenuen Euskal Herria?

Bai, topiko batzuk ezagutzen nituen. Hemendik kanpo, ordea, jendeak gutxi daki Euskal Herriari buruz. Gehienbat, gauza desatseginak. Halako batean, interesa sortu zitzaidan hizkuntzari buruz gehiago jakiteko. Guri esaten ziguten euskara gaztelaniaren dialekto bat zela, baina halako batean konturatu nintzen bazeudela kontraesanak. Adibidez, zergatik San Sebastiangoa den norbaiti deitzen zaio donostiarra? Ikaskideekin batera pixka bat ikertu eta une hartan bertan jakin genuen euskara ez zela berez dialekto soil bat. Euskara ikasteko eta Euskal Herriari buruz gehiago jakiteko aukera sortu zitzaidananean orduan eta gehiago gustatu zitzaidan.

### Zer eman dizu zuri euskarak?

Asko, ez daukat hitz egokirik hori behar bezala adierazteko. Euskarak asko eman dit eta ematen dit. Ez dakit nik euskarari horrenbeste ematen diodan, baina... ■